



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2019ko UZTAILAREN 24an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2019ko uztailaren 24an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 16.45 orduetan, Maite Arana Perez Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.


ZINEGOTZIAK: *Aitor Beistegui Fiallegas*
Maialen Alonso Labandibar
Vicente Garcia Momblona
Jesus Maria Tejada Cantero
Mireia Ruiz Delgado
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala bada/gokio/ Aprobación, si procede de las siguientes actas Plenarias:**
 - **2019ko ekainaren 15ean egindako bilkura./ Sesión de fecha 15 de junio de 2019.**
 - **2019ko uztailaren 4an egindako ez ohiko bilkura./Sesión extraordinaria de fecha 4 de julio de 2019.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. 2/2019 Kreditu aldaketaren hasierako onespena, hala bada/Aprobación inicial del expediente de modificación de créditos 2/2019.**
- 4. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 2019ko 3. Eta 4. Hiruhilabeteari dagokion ekarpena burutzea, hala bada./ Aportación económica correspondiente al 3. Y 4. Trimestre del 2019, a Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea.**
- 5. 2018ko Kontu Orokorraren behin betiko onespena, hala bada./ Aprobación definitiva de la Cuenta General del Presupuesto del 2018.**
- 6. 2019 urteari dagokion Oporrak Bakean programaren onespena, hala bada/Aprobación del programa, Oporrak Bakean correspondiente al 2019.**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

7. Herriko baserrietara doan bideetako belarra mozteko kontratu esleipena, hala bada./ Adjudicación del contrato para desbroce de hierba de la carretera de acceso a los caseríos.
8. San Esteban eta San Bartolome jaietarako “justifikatzeke gastuetarko” udal langileari diru ekarpena, hala bada./ Aportación económica a la trabajadora municipal en concepto de “pagos a justificar” para las fiestas de San Esteban y San Bartolome.
9. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.
10. Beste batzuk/Otros.
11. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.

..//...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN ADIERAZTEN DEN UDALBATZARRETAKO AKTA ONESTU, HALA BADAGOKIO

- ▣ 2019 urteko ekainaren 15ean Udalbatzaren eraketa bilkurako akta. Irakurri ondoren bertaratuek, Aitor Beistegui zinegotziaren abstentzioarekin, ez bai zen bilkura horretan egon, gehiengoz onesten dute.
- ▣ 2019 urteko uztailaren 4an Udalbatzaren ez ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARRENGO PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA


Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 46/2019 tik 67/2019ra Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARREN PUNTUA

2/2019 KREDITU ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA, HALA BADA

Larraulgo Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Eztabaidatu ondoren, Udalbatza honek, aho batez, honako hau


ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:


Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egunoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.210.171.00.01 2019	AZPIEGIT.ETA OND.GAST.PARKE ETA LORATEGIAK	400,00	300,00	700,00
1 0000.210.933.00.01 2019	AZPIEG.ETA ONDAS.GASTUAK: OSTATUA	200,00	300,00	500,00
1 0000.226.334.00.06 2019	JARDUERA SOZIO KULTURALAK	550,00	400,00	950,00
1 0000.226.920.00.99 2019	BESTELAKO HAINBAT GASTU	100,00	100,00	200,00

**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

1 0000.227.920.00.99 2019	BEST.ENPR.EMAND.ZERB : DATUEN BABESA- ARTXIBOA	700,00	3.656,00	4.356,00
1 0000.422.340.00.02 2019	BESTE ENTIT.EKARP.AIZTONDO KLASIKA	648,00	385,50	1.033,50
1 0000.422.410.00.01 2019	BESTE ENTIT.EKARP.TOLOMEN DI	1.900,00	62,61	1.962,61
1 0000.601.153.00.01 2019	AZPIEGITURAREN INBERTS: PLAZAREN KONPONKETA. LORONTZIAK	47.764,00	2.000,00	49.764,00
1 0000.210.163.00.01 2019	AZPIE ETA OND.GAST.KALE ETA BIDE GARBIKETA.	500,00	2.120,00	2.620,00
1 0000.419.922.00.01 2019	BESTE ENTITATEEI EKARPENA: EUDEL	0,00	305,00	305,00
1 0000.622.933.00.01 2019	ZERB.FUNTZ.INBERTS: ERAIKUNTZA: OSTATUA	19.200,00	1.000,00	20.200,00
GUZTIRA		71.962,00	10.629,11	63.391,11

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
-------------	----------------	-----------------	-------------------



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

a	2 0000.870.000.00.01 2019	GERAKINAK	10.629,11
FINANTZAKETA GUZTIRA			10.629,11

BIGARRENA: Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

HIRUGARRENA: 2019ko uztailaren 23an egindako Idazkari-Kontuhartzailearen komunikazioa onestea, non azaltzen den:

KONTUHARTZAILEAREN KOMUNIKAZIOA

2019ko Aurrekontuaren 2. Kreditu Aldaketako espedientea kontuan hartuta, Udal honek ez du betetzen 2019ko aurrekontuen egonkortasuna eta gastu araua. Beraz, Udal hau behartuta legoke, beraz, plan ekonomiko finantzarioa onartzera.

Hala ere, kontuan izanda 2019rako ezarritako zor helburua betetzen dela eta aurreko urteko likidazioan aurrezki garbia eta diruzaintza gerakina positiboak izan direla, Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2014ko azaroaren 19ko Jarraibidearen 3. erregelari ezarritakoari jarraituz, kontuhartzaile honek berariazko txostena hau egin behar du eta batzarrari jakinaraziko zaio, plan ekonomikoa ordezkatzeko duena.


Eta argi eta garbi ikusten da Kreditu Aldaketako espediente honek ez duela entitatearen finantza iraunkortasuna eta aurrekontuaren egonkortasuna zalantzan jartzen.

“ Aitor Beistegui Fiallegas zinegotziak horrela eskatuta, Udalbatza honek, aho batez, une honetan, 11. Puntua aztertzen da.”

HAMAIKAGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Aitor Beistegui zinegotziak batzarkideei ondorengoak jakitera ematen die:

-Tolosaldeko Mankomunitateak bere estatutoen aldaketa prestatzen ari dela, beraz, batzarkide guztiei bidaliko zaie hauen zirriborroa, hauek aztertzeko.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

-Foru Aldundiak euskarari buruzko bilera bat antolatu zuen, baina ezin izan zuenez bilerara joan, bertan emandako informazioa eskatu zuen. Honen berri zinegotzi guztiei bidaliko zaie.

-Tolomendik antolatutako bilerara joan zen, bertan Junta osatu zen eta Landa Ingurunearen Garapenerako Lege berriaren aurreproiektua onartu dela azaldu zitzaion, alegazio epea zabalik dagoelarik.

Batzarkideak guztiaren berri hartzen dutelarik.

17.20 orduak direnean, Aitor Beistegui Fiallegas zinegotzia Udalbatza honetatik irteten da.

LAUGARREN PUNTUA

AIZTONDO ZERBITZUEN MANOMUNITATEARI 2019KO 3. ETA 4. HIRUHILABETEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik 2019ko uztailaren 4an Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2019 ekitaldiko 3. eta 4. hiruhilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Larraulgo Udalak burutu beharreko ekarpena 14.500,00 eurokoa dela adierazten den. Ekarpena, Larraulgo udalak eskatuta, ondoren zehazten den moduan banatzen da:

- Gizarte zerbitzuak: 12.000,00 euro
- Kultura: 2.500,00 euro

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela 2019 urteko udal aurrekontuetako 421.230.00.01 eta 421.330.00.01 partidetan.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa


ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 14.500,00 eurotako ekarpena burutzea 2019 ekitaldiko 3. eta 4. hiruhilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko. 2019 urteko udal aurrekontuetako 421.230.00.01 eta 421.330.00.01 partiden kargura. Kontzeptu hauetan banatuta:

- Gizarte zerbitzuak: 12.000,00 euro
- Kultura: 2.500,00 euro

BIGARRENA.- 14.500,00 eurotako gastua onartzea.

BOSTGARREN PUNTUA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2018KO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 2018 ekitaldiko Larraulgo Udaleko Kontu Orokorra 15 lanegunez jende aurrean jarri dela, bere iragarkia Udaleko Iragarki Taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, edonork aztertu eta egoki zituen alegazioak aurkeztu zitzaizkien.

Ikusirik 2019ko maiatzaren 24ean argitaratu dela iragarkia GAOn eta jendaurreko epea ireki dela 2019ko maiatzaren 27tik ekainaren 14ra bitartean, biak barne, ez delarik bere aurka inolako iradokizun zein erreklamaziorik aurkeztu.

Ikusirik Udaleko Behin behineko Idazkariak Kontu Orokorrari buruz egin duen txostenean dioena.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA.- Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Toki Ogasunen Aurrekontuari buruzkoak, xedatutakoarekin bat etorritik Larraulgo Udaleko 2018 ekitaldiko Kontu Orokorrari behin betiko onespena ematea.

BIGARRENA.- Akordio honen berri Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ematea.

SEIGARREN PUNTUA

2019 URTEARI DAGOKION OPORRAK BAKEAN PROGRAMAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik, Tolosako Udalak aurten ere Oporrak Bakean programa antolatu duela, programa honen babesean Saharako hainbat neska-mutil etorriko dira Tolosaldeako familietara uda-aldia igarotzea, bere osasuna eta garapena hobetzeko helburu nagusiarekin.


Ikusirik, Larraulgo Udalak ere parte hartu nahi duela programa horretan.

Ikusirik, programa hori gauzatzeko hitzarmen bat prestatu dela Tolosako Udalaren eta Larraulgo Udalaren artean sinatzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udalak, Oporrak Bakean programan parte hartzeko onespena ematea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARRENA: Larraulgo Udalak, Oporrak Bakean programarako, 2019ko udal aurrekontuetako 417.231.00.01 Kontu sailan, 125,00 euro aurreikusi dituela, programak sortarazten dituen gastuekin laguntzeko. Aipaturiko gastua egiteko onespena ematea.

HIRUGARRENA: Larraulgo Udalak eta Tolosako Udalak Oporrak bakean programa aurrera eramateko prestatutako hitzarmena onestea. Maite Arana Perez, Larraulgo Alkatea ahalmentzen delarik aipaturiko hitzarmena sinatzeko.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Tolosako Udalari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

HERRIKO BASERRIETARA DOAN BIDEETAKO BELARRA MOZTEKO KONTRATU ESLEIPENA, HALA BADA

Larraulgo Udalak, herriko baserrietara doan bideetako belarra mozteko beharrea aurkitzen da.

Ikusita, Larraulgo Udalak ez duela baliabide material eta pertsonalik lan hauek egiteko.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua arabera kontratu txiki baten aurrean gaude. Zerbitzu kontratu txiki baten aurrean.

Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.

1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.

En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.

2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º

4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.

Zerbitzu kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000 € azpitik dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Lan hauek egiteko hiru aurrekontu eskatu dira, aurkeztu duen bakarrak betetzen dituelarik kontratu legeak agindutakoak.

IRATZE LOREZAINZA, S.L.U enpresarekin, Larraulgo Udalak 2019. urtean zehar ez du 15.000€ko zerbitzu kontratuen urteko muga gainditu.

Gaia azterturik, udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: IRATZE LOREZAINZA, S.L.U enpresari, Herriko baserrietara doan bideetako belarra mozteko kontratua esleitzea 1.750€ (BEZa kanpo), 1.0000.210.163.00.01 kontu sailaren kontura “Azpiegitura eta ondasun gastuak: kale eta bide garbiketa”.


ZORTZIGARREN PUNTUA

SAN ESTEBAN ETA SAN BARTOLOME JAIETARAKO “JUSTIFIKATZEKE GASTUETARAKO” UDAL LANGILEARIARI DIRU EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik, herriko jaien antolaketarako, premia duten hainbat gastu aurreratu behar direla.

Ikusirik, 2019 udal aurrekontuetan 226.338.00.06 partidari herriko jaiak antolatzeko 7.000,00euro aurreikusi direla.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: 2019 urteko herriko jaien antolaketan premia duten gatuak ordaintzeko, 1.500,00 eurotako diru-kopuruaren ekarpena burutzea Ruth Tome udal langileari, justifikatzeke ekarpen modura.

BIGARRENA: 1.500,00 eurotako gastua onestea, udal aurrekontuetako 226.338.00.06 partidaren kargura.

HIRUGARRENA: Ruth Tome udal langileari jakinaraztea, herriko jaiak bukatuta, 3 hilabeteko epea izango duela, Udaletxe honek egindako diru ekarpenaren frogagiri guztiak aurkezteko.

BEDERATZIGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondoren Alkate andreak, batzarkideei jakinarazten die, Tokiko Gobernu Batzordeak **25.531,96** Eurotako faktura erlazioa onartu duela.

Batzarkideak jakinaren gain gelditu direlarik.

BEDERATZIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Batzarkideak aho batez, Udalbatza honetan, hurrengo puntua gai zerrendan sartzea onesten dute:

9.1. EUSKADIKO UDALEN ELKARTEARI (EUDEL) ATXIKITZEA, ESKUBIDE OSOKO KIDE BEZALA, HALA BADA


Ikusirik Larraulgo Udalak Euskadiko Udalen Elkartearen (EUDEL) eskubide osoko kide egiteko asmoa duela.

Ikusirik espedientearen berri ematen dela.

Kontutan hartuz, Erakunde horren asmoak, bere Estatutuen 5. artikulua arabera, Udalaren suduen aldetik guztiz onuragarritzat hartu behar direla.

Kontutan hartuz, aipatu Estatutu horien 7. artikuluaekin bat etorritz, Elkartearen sartzen diren Udalak eskubide osoko kideak direla.

Kontutan hartuz, Udalerriak nortasun juridikoa duela eta Udal hau bere izenean kidea izateko gai dela.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udalak onartzen duela Euskadiko Udalen Elkarteari atxikitzea, eskubide osoko kide bezala.

BIGARRENA: Larraulgo Udalak Euskadiko Udalen Elkarteko eskubide osoko kide bezala 300,51 eurotako ekarpena burutzea EUDEL eri, dagokion gastuari onespena emanaz.

HIRUGARRENA: Aipaturiko gastua 2019ko aurrekontuetako 1.0000.419.922.00.01 kontu sailaren kontura egitea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Euskadiko Udalen Elkarteari, hau da, EUDEL-eri ematea.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 17:30 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.